

Hernaniarren iritziz, Sagardotegiak eta Chillida-Leku dira elementu turistiko nagusiak, LKSren arabera

■ LKS Consultores enpresa turismoaren plan estrategikoa egiten ari da eta enkuesta egin du hernaniarrek turismoa nola ikusten duten jakiteko ■ Plan estrategikoa aurrera eramateko lan taldea sortu da.

UDALAK aginduta, LKS enpresa Hernaniko turismoari buruzko plan estrategikoa egiten ari da, baliabide turistikoari buruz egindakoa oinarri hartuta. LKS enkuesta batean egin du 215 herritarren artean eta % 35,30ren ustez sagardotegiak dira Hernaniko baliabide turistiko garrantzitsuena; % 24,20rentzat Chillida-Leku museoa da, % 13-arentzat lekua bera, % 9,30-entzat paisajea eta % 4,20-entzat gastronomia.

Galdeketak biltzen ditu jendearen ustez turismoaren ahuleziak non dauden edo hobetu beharreko elementu nagusiak zein diren ere.

NOLA IKUSTEN DU JENDEAK TURISMOA

PUNTU FUERTEAK

Sagardotegiak,
Chillida-Leku museoa
eta lekua bera.

PUNTU AHULAK

Prezioak, kultur
eskaintza eta zerbitzuen kalitatea.

NEURRIAK

Alojamendu, eskaintza
haunditu, publizitatea
eta kontzertuak.

Prezioak, kultur eskaintza eta zerbitzuen kalitatea dira jendeak ikusten dituen ahuleziak, orden horretan eta alde gehiegirik gabe. Turismoa hobetzeko zein bi gauza egin beharko liritekeen galdetuta, % 60ak erantzun du alojamendu eskaintza haunditu beharko litzatekeela; % 19,50-ek publizitatea egin behar dela, eta % 14 kontzertu gehiago antolatu behar direla.

Galdetutako gehienek iritziz, turismoa Udalak bultzatu behar luke, batez ere, baina beste elementu gehiago ere azaltzen dira: Berriak, Diputazioa eta Jaurlaritza, enpresak, ostalariak

Lan Taldea martxan

Turismoaren Plan estrategikoa egiteko lan taldea sortu da herrian eta dagoeneko martxan da. LKSko teknikak eta udal ordezkariak gain, turismoarekin zerikusia duten elkarteetako ordezkariak biltzen ditu taldeak: ostalari-tzakoak, sagardotegietakoak... Eta interesgarri jo diren zenbait partikular ere badaude lan taldean.

Turismoaren lan taldea aurreko astelehenean bildu zen aurreneko eta hilaren 24an bilduko da berriz.

Ondo bidean, Turismoaren plan estrategikoa urte hasiera alderako egon liteke. □

Elizatzoko urbanizazio proiektua bihar onartuko du Gobernu Batzordeak

BIHAR Gobernu Batzordea bilduko da, eta Elizatzoko 37, 38, 43, 44, 47 eta 48garren zenbakietako urbanizazio proiektua onartuko du, eta obrak adjudikatzeko lehiaketa publikoa martxan jarri, azken orduko aldaketarik ezean. Aurreko astean, Obra Batzordeak onartu zituen proiektua eta lehiaketa baldintzak. Proiektuak Elizatzoko zati horren urbanizazioa eta beste zenbait zerbitzu planteatzen ditu: aparkalekuak, lokalak eta abar. Proiektuak 577.000 euroko aurrekontua du.

Astearteko Gobernu Batzordeak beste 13 puntuko gai ordena du. Horietako gehienak aurreko astean Hirigintza Batzordean onartutakoak dira: zenbait enpresetan aktibitate berriak martxan jartzeko lizentzia eskaerak, baserria eta sagardotegia haunditzeko eskaera eta eguzki panelak jartzeko eskaera. Horretaz gain, Zikuñagan jatetxea zabaltzeko eskaera ere aztertuko du Gobernu Batzordeak. Azkenik, Remy-Harnera poligonoari izena jarriko zaio. □



Gorka Tolosa, Iñaxito, Tai-chi egiten, kurrilo erara. Eskubian, umeek ere parte hartu zuten Iñaxitoren ametsetan.

Iñaxitoren ametsak, eta 500 euro Irunberriko Arangoiti ikastolarentzat

DOBERAK antolatuta, Iñaxitoren ametsak umeentzako antzerkia izan zen larunbatean Sandiusterrin. Gorka

Tolosa, Ibai Esoain eta Xabier Sukiak geografiako azterketa bezperan lo geldituko umek baten ametsak kon-

tatu zituzten. Umeek ere parte hartu zuten antzerkian eta tai-chi egiten jarri zituzten.

Ekitaldia Nafarroa Oine-

zen aldeko zen eta ametsak amets, 500 euro ere iritsiko dira Irunberriko ikastola berria egiten laguntzeko. □

BERTSOLARITZA

Maialen Lujanbio Gipuzkoako txapelketako finalera, Eskoriatzan irabazita

MAIALEN Lujanbio bertsolariak irabazi du Gipuzkoako txapelketako aurreneko semifinalla, eta Irunen jokatu den finalean izango da abenduaren 14an. Lujanbiok 511 puntu atera ditu. Bigarren Aitor Mendiluze gelditu da 508,5 punturekin. Hirugarren Amaia Agirre gelditu da 487,5 punturekin, laugarren Arkaitz Goikoetxea, 474ekin eta Estitxu Eizagirrek bosgarren egin du, 470ekin. Seigarren Bixente Gorostidi izan da, 464,5 punturekin. Bertsolariek saio ederra egin dute eta giro latza izan zen atzo Eskoriatzan. □

TXINTXUA
HOTELA

Tel.: 943 33 17 50
943 33 36 80
Faxa: 943 33 18 35

Zikuñaga auzoa 72
20.120 HERNANI

GELAK
komona
telebista
Internet

KAFETEGIA
APARKALEKUA

PREZIO BEREZIAK
TALDE ETA
ENPRENTZAT

SAGARDOTEGI
ZIRKUITUTOTIK
OSO GERTU

e-maila: HTrepcion@hotel-txintxua.com - Web: www.hotel-txintxua.com

mikel armendariz
proiektu eta instalazio
elektrikoak

Tel. 649 846 422
HERNANI

Zure betiko
denda, orain

AITOR PEÑA
COVIRAN

Eskaintza
onenak :

Fruta
Berdura
Harategia
Txarkuteria
Bolleria
Drogeria
Perfumeria
.....

AITOR PEÑA - COVIRAN - Larramendi 5 - 943 33 31 03

■ ERRUGBIA



Hernaniarren jokoak, euriak eta lokatzak espektakulu polita ikusteko aukera eman zuten Landaren.

55-0 irabazi, eta gozatua lokatzetan

HERNANIK ia nahi zuen guztia egin zuen atzo Landaren Ejearen kontrako partiduan eta sailkapenaren goiko muturrean jarraitzen du, partidurik galdu gabe. Jokalariez gain, euria eta lokatza izan ziren partiduko

protagonista nagusiak, batez ere bigarren denboran. Baina, markagailua alde zutela hernaniarren gozatu ederra hartu zuten. Benbenen mutilek entsaio politak egin zituzten eta Landareko publikoak gogotik txalo

lotu zituen. Partiduko alde iluna, Ibai Mitxelenak eskuko behatz batean min hartu izana eta 10 bat egunean ezingo du jokatu. Hurrengo partidua Donostian, Atletikoren kontra. □

■ FUTBOLA

Gorengoak 0-0, eta neskek 0-1 galdu

LORANEN mutilek puntu bat ekarri zuten Irundik, Real Unionen kontra 0-0 berdinduta. Asteburu honetan ere ikusi da, etxetik kanpora asmatzen duela eta Zubipen dabilela ezinean.

Markos Trejoren taldeak berriz, hiru puntuak ateratzeko aukera polita galdu zuen atzo Zubipen. Hernani eta Añorga husna iritsi ziren atsedinaldira. Bigarren denboran hasita, añorgarrak 10 jokalarirekin gelditu ziren, hernaniarrei egindako falta betengatik bigarren txartel horia ikusita. Hala ere, partidua bukatzeko ordu laurden bat falta zen Añorgak sartu zuen 0-



Hernaniarrek ezin izan zuten punturik atera atzo Zubipen.

lekoa eta auzora joan ziren 3 la partiduan sartu, eta bihurtzeko ordu laurden bat falta zen Añorgak sartu zuen 0-1 galdu. Markos Trejoren us- tez Hernani ez zen behar beza- rekin beharrean. □

Hernaniko Kronikako laguntzaile izan nahi?

Urtean 30 eurogatik egunero *kronika* dohainik

Telefonoz hartuko dizkizugu datu guztiak:

☎ 943 330899 - 656 703814

Bonoa zeuk bete nahi baduzu, jaso leku hauetan: Conde (Urbietan), Zinkoenea, Iruretagoiena (Kale Nagusia), Kronika (Larramendi 11) eta Dobera (Larramendi 11)

📄 JASOTA BEZALA

Txantxangorriko Direktibari

Ehizeko zozketen garbitasunari buruz Kronikan hilaren 9an eta Diario Vascon hilaren 11an ateratakoa irakurrita, zaila egiten zait sinistea elkarte emblematico bateko lehendakariak sinatu dituela.

Garbi esan nezake, Hernaniko Klubek ez dute horrelako atakerik izaten. Seguruena, gogoan dugun gogorrena, zitalena, neurrigabekoena, probokatiboena eta desesperatuena izango da. Uste dut idatzi horiek egin dituenak bere burua deskalifikatzen duela, eta beraz ez diot erantzungo, eta gustatuko litzaidake beste ondori- orik ez izatea.

Garbi utzi nahi dugu Txantxangorriko ehizeko postuak Ehizeko Federazioaren bitartez administratzen dituela eta ehiztari guztiak behar dutela aukera bera, Txantxangorriko bazkide izan edo ez. Antzeko zerbait gertatzen da Santa Barbarako tirolekuarekin.

Federazioan izandako kejei dago-kionez, Txantxangorri badaude horien kopiak eta eskatu zenitzakete. Zeok ikusiko duzue hor ez dagoela ez gezurrik, ez inongo gaizki esakarik, eta ezta Txantxangorriren izen onaren kontrako atakerik ere. Keja horietan inor ez da sartzen deskalifikazio pertsonaletan, eta ez da inor errespetuan faltatzen. Eskatu kopiak eta zeok ikusi eta baloratu non dagoen tergibertsazioa, manipulazioa, probokazioa eta errespetu falta pertsona eta klubentzako.

Jakingo duzue, Ehiza Federazioak Txantxangorri Elkarte eta ordenadore bidezko zozketak apio-

atzen dituen bezalaxe, era berean, apoiatzen dituela beste elkarteak, bigarren zona, federatutako ehiztariak eta boltsa, bonbo edo abarrekin egindako zozketa garbiak ere. Eta apoiatzen du ELKARTEAK ETA ELKARTEA OSATZEN DUTEN PERTSONEN ARTEKO ERRESPECTUA ERE.

Inork apoiatzen ez duena da hilaren 9an Kronikan eta hilaren 11 Diaron ateratako artikulu penagarria, zuten Lehendakariak sinatuta.

Gaiak zalaparta handia atera du, eta besteak beste hiru gauza jarri dira zalantzan:

-Lehendakariak ehiztarien aurrean duen sinesgarritasuna.

-Zozketaren garbitasuna (ordenadorearekin edo gabe)

-Elkarteren irudia, Hernaniko Ehiza postuen eta Santa Barbarako Tirolekuaren administratzaile gisa. Bazkide direnzentzat eta ez direnzentzat.

Garbitasun eske zetorrenari erantzuteko ez ziren ibili behar gaizki esakak eta probokazioak. Araudian ere ez zuen sekula egon behar artikulu bat zozioa direktibari baimena eskatzera behartzen duenik, kontrako iritzirekin bat emateko. Horren ordez, beste bat jarri zitekeen bazkidea buruzagien abusuetatik hobeto defenditzen duena.

Eskatutako garbitasuna defenditzen dugu, eskertzen dugu jasotako babes, bai ehiztariena eta bai klubena, eta seguru gaude Txantxangorriko ondo erantzungo diela plantetatutako kuestioei.

Jaso ezazue gure agurra, adietasunez,

Txirta Elkarteak
Ion Azpiazu, Lehendakaria

KIROLA ASTEBURUKO EMAITZAK

PELOTA		
Gipuzkoako Txapelketa		
Infantilak	Añorga - Lazkao / Añorga I	18-12
Infantilak	Gaioendia - Otaegi / Añorga II	15-18
Kadeteak	Zabala - Gaxiola / Bergara	22-2
Kadeteak	Mundano / Fendz Gorostiza - M. Uñoz	14-22
Kadeteak	Zazpuri / A. Ipiarte	6-22
Jubenilak	Itxarondo / Etxez - Añorga	22-16
Jubenilak	Añorga / Ramos - Zumutza	22-13
Jubenilak	Añorga / Unai Ezeiza	22-18
Jubenilak	Leire - Ane / Garazi - Ane	30-15
Nagusiak	Aizarna / Alvarez - Sebastian	22-17
Nagusiak	Zumai / Itxarabana - Otegi	22-6
FUTBOLA		
Taldeak		
Gorengoak	Real Union - Hernani	0-0
Emakume Liga	Hernani - Añorga	0-1
Gazteen Eusk. Liga	Hernani - C. Mues	3-1
Gazteen 1. maila	Gure Txokoak - Hernani	2-7
Kadeteak oherozk.	Hernani - Hernani	0-1
Kadeteak 1. maila	Lengokoa - Hernani	0-1
Haurren 1. maila	Hernani - Uñeta	2-1
ERRUGBIA		
Liga Nazio.	Hernani - Eja	Landare
Euskal Liga	Hernani - G. Aztedi	14-147
Jubentila	Hernani - Eja	40-0
Infantila	Hernani - Eja	10-5
Kadeteak	Bera - Bera - Hernani	7-56
Alebinak	Hernani - Langile	20-0

IRAGARKI MERKEAK

Pertsona bat behar dugu haurra zaindu eta etxeko lanak egiteko. 2 egunetan bertan egin beharko luke lo: **943 55 64 39 (20:00etatik 22:00etara deitu)**

Iñigo Royo Masajista. Ajuste neurologiko eta bertebrala, naturoterapia, masajea, reflexologia, auriculoterapia,....: **943 33 28 94 - 626 80 76 33**

Pisua salgai zentroan: 3 habitazio, kalefazioa eta balkoi handia. **943 21 99 27**

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

☎ Taxiak:
943 550093
☎ Udaltzaingoa:
943 333288
☎ DYA:
943 464622
☎ Anbulatorioa:
943 006666
☎ Jokalari animoak:
943 331103

☎ FARMAZIAK

ASTELEHENA	ASTEARTEA
☎ Egunez: Aizpuru Latxunbe Berri 11 ☎ 943 336077	☎ Egunez: Etxebeste Elkano 2 ☎ 943 552087
☎ Gaez: Orue Lasarte. Jaizkibel 2 ☎ 943 362652	☎ Gaez: De Miguel Lasarte. Nagusia 32 ☎ 943 361556